


## Oskar Garro txirrindulari igorreztarra Munduko Kopan neurtuko da

10. orrialdea

## Jantzak eta akrobaziak irabazi dabe Zu bai Zu Lehiaketean

Bagilaren 12an jokatu zan Igorren Zu bai Zu Arratiako Talentu Lehiaketako finala. Patikao taldea jantzan nagusietan, Jone Muñecas eta June Iruarizaga akrobatak gazteetan eta Magali umeetan, hau be akrobaziak egiten, izan ziran irabazleak. 12. orrialdea



## Arratiako Kaleko Arteen I. Erakustaldia Arantzazu eta Areatzan

13. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 254

2016ko bagilaren 15a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Sanjuanak eta sanpedroak

Jaietan bete-betean sartuta, oraingo hamabostaldian sanjuanak eta sanpedroak ospatuko ditue arratiarrak.

Sanjuanak Bedia eta Ubide herrietako jaiak dira, baina auzune askotan biztuko dabez San Juan suak: Arantzazun plazan, Areatzan Zubizarran, Diman frontoi ondoan, Igorren San Juan auzunean, Lemoan Tallerretan eta Zeanurin Altzuagan, barbarako.

Bedian eta Ubiden be bagilaren 23ko gaubean sua izango da protagonista, baina jai egitarauak ekintzaz beteko ditue hurrengo gau eta egunak: kontzertuak, erromeriak, gastronomia lehiaketak eta kirolak, edozein edadetako

jenteak ondo pasau dagian. Ubiden, basora joan eta arbol handi bat altxauko dabe herriko plazan. Bedian ezin aitatu barik itxi zapatu gaubeko kontzertuak: Zeinke, ETS eta Drindots taldeak joko dabe gau horretan.

Sanpedroak Arantzazu eta Dimako jaiak dira eta herri honetan be, gorputza mobiduteko eta lagunakaz jateko aukerarik ez da faltauko. Zeanuriko Undurragan eta Lemoako Elorriagan be sanpedroak ospatuko ditue.

5., 6. eta 7. orrialdeak



Dimako jaietako igazko irudi bat.

### ARRATIA

## Arratia errekea, eskualdearen izena eta izana

Alvaro Rabellik, gure bailararen ardatz dan Arratia errekearen gaineko erreportajea dakarku oraingoan. Bertoko kondaira baten arabera, Arratia errekan ez dago laminarik San Juan eguneko goiz baten, bedekintutako zekor bigaz goldatu ebelako errekea, laminak desagertuarazoteko.

Kondairatik, historiara pase-tan da Rabelli eta gaurko Arratia errekearen erratratua egiten dau.

8. eta 9. orrialdeak



### AREATZA/LEMOA

## Bagilaren 18an zabalduko ditue Areatza eta Lemoako igerilekuak

Areatzan eta Lemoan dagoz Arratiako aire zabaleko udal igerilekuak. Bagilaren 18an zabaldu eta urri lehenengoaren 9ra arte egongo dira zabalik Areatzako piszinak. Lemoakoak be hilaren 18an zabalduko dabez ateak eta urri lehenengoaren 18ra arte egongo dira zabalik.

Areatza, Igorre eta Arteako Udalak hitzarmenak sinatu dabez eta Artea eta Igorreko herriarrak, prezio berezia izango dabe Areatzako piszinetan. 6. orrialdea

**E P A**  
Galdakao  
www.epagaldakao.com  
Matrikuletako epea, bagila osea.  
Tfn. 94 456 60 98  
Helduen heziketa  
E.P.A.  
IGORRE: Elejalde 22. Eleizako lokaletan

### ARRATIA

## Bardintasunaren aldeko kanpainak

Bagilaren 28aren inguruan, Aniztasun Sexualaren aldeko Eguna, genero identidatean oinarritutako diskriminazioaren kontrako kanpainak ipini dabe martxan Arratian. Eta eraso sexistai aurre egiteko Beldur Barik kanpainak be abiatu dabe; jaiak, gaua eta kalea andrazkoenak be badirala aldarrikatzeko. Hori dala eta, Bediako plazan Beldur Barik Gunea ipiniko dabe hilaren 25ean, 20:00etan, eraso sexisten kontrako materiala eta musikeagaz. 7. orrialdea



**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta euskeraz zein erderaz  
Agirre Lehendakaria 11, 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83  
E-posta: uzuluaga@gmail.com

# ARRATIA ZURI-BALTZEAN

## VICENTE URRECHA DE LA TORRE (ARTEA, 1825-1899)

Vicente Rufino Urrecha de la Torre Artean jaio zan 1825eko garagarri-laren 19an. Bateoa Elexabeitiako San Migel parrokiari jaso eban. Aita, Lucas Urrecha Gandasegui deitutzen zan. Lucas arteaztarra zan, San Migel eleizako patronoa, patrono "dibisero" a edo jaubea hain zuzen be, eta gizon podere-tsua herrian: Elexabeitia abizene-ko jauntxo zaharren ondorengo zuzena. Ama, Francisca de la Torre Ereñozaga zan, Bilboko familia baten alabea.

Vicentek Madrilan egin zituan goi-mailako ikasketak, Madrilgo Unibersidade Zentralean. 1850eko urtean amaitu eban Medikuntzako karrera, lizentziatua lortuz 25 urteaz. Bizkaira bueltau zan mediku lanak egitera, lehenengo Dimara eta ostean Urduñan, Ze-

berion eta Barakaldon egon zan herriko mediku lanak egiten. Urduñan emon eban denporaldian, 1854. urtean, kolera epidemia kutsagarria zabaldu zanean, behar nabarmena egin eban. Hurrengo hamarkadan, 1866ko urtean hain justu, Areatzako eta Arteako bainutegietako arduradun kargua emon eutsien Vicenteri. Bainutegiak modan jarri ziran XIX. mendean zehar, beste gaxen artean, azaleko gaixoak eta erreumatismoa osatuteko. Arratian, esate baterako, hiru bainuetxe egon ziran (Areatzan, Artean eta Zeanurin). Bainuen denporaldia udan izaten zan, bagilaren 1etik urri lehenengoaren 30ean amaitu arte, hau da, lau hilabeteko kanpaina. Vicentek jarraitu eban egiten bere lan profesional osoa bainutegien mun-

duan: 1877an, urteetako esperientzia kontuan harturik, Bainutegi eta Ur Mineralen establezimientuetako Mediku Zuzendarien Taldean sartu zan; 1888an, Bizkaiko kostaldeko herria dan Kortezubiko Bainutegian Mediku Zuzendaria izan zan; 1891tik 1895era arte, hau da, lau urtez, Nafarroako Erriberan dagoan Fiteroko Bainutegi ospetsuan be Mediku Zuzendaria izan zan. Vicentek itxi eutsanean Arteako bainutegiko karguari, esan dogunez beste bainutegi batzuetako kargua hartzeako, Manuel Urrecha Bergareche lobebe izan zan XIX. mendean amaierako urteetan Arteako bainutegiko arduradun nagusia. Manuel Urrecha ezkondua egoan Mercedes Arriola Moyua aristokrateagaz, Zeanuriko Andra Mari eleizako patronoa

zan alabeagaz. 1895ean, Vicentek 70 urte bete zituan, jubilau zan. Orduan, Vicenteren bizitzaren azken urteetan Bilboko hainbat artista joaten ziran Arratiara, udan batez be, zeinda Anselmo Guinea margolaria Arteara joaten zan moduan. Mendea amaitzeaz egoanean, 1899ko abenduaren 2an

hil zan bere jaioterrian Vicente Urrecha, 74 urteaz.

\* Oharra: "Diccionario histórico de médicos vascos" Luis Granjelek koordinatutako ikerlanetik ateratako datuakaz baliatu naz artikulu hau egiteko.

**Angel Larrea Beobide**



Arteako Bainuetxea, 1919.

Argazkia: Indalecio Ojanguren.

### TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**

**Bagilaren 13tik 19ra**

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

**22:00etatik 09:00etara**

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

**Bagilaren 20tik 26ra**

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

**22:00etatik 09:00etara**

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

**Bagilaren 27tik garagarri-laren 3ra**

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

**22:00etatik 09:00etara**

Melero. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**

**22:00etatik 09:00etara**

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**

94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Trenak**

Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265**

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduru: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduru: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduru.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduru.

Jaiegunetan orduru 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Otxandiotik urteerak:**

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduru.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduru.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduru.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduru.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduru.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Arriorriaga**

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

**Zeberio-Arriorriaga**

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10.

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arriorriaga-Zeberio-Artea**

Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Arteraino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Arriorriaga-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40. Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union\* 94 427 11 11**

**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [beginu@topagunea.com](mailto:beginu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.beginu.org](http://www.beginu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Rakes Aldekoa Diez.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

**Publizidadea:** Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketeta:** Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).


**Tiradea:** 7.000 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.




**zertu**  
KULTUR ELKARTEA

**Babesleak:**



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



## ZEURE BERBEA

### Legitimidade legala eta legitimidade morala. Zeberioako alkatearen soldatea dala eta

Zeberioako alkateak aurrerantzean kobrauko dauan soldateak eztabaidarako gai interesgarria plazaratu dau: zer dan legala, zer dan eraginkorra eta zer dan morala. Izan be, bilakaerea egon da soldatea justifiketako puntuan. Hasikera baten, argudio legalak erabili ebazan alkateak: legeak soldatea kobrotea baimenduten ebala, eta horrek eskubidea emoten eutsala soldata hori ezartzeko. Hurrean, EAJ-PNVk pentsau dau gauza bat dala baimena emotea, eta beste bat derrigor aplikau behar izatea, eta orain, BEGITU agertzen danari erreparatuta, eraginkortasun argudioak erabilten dira: soldata egonda, dedikazioa handitzen da, eta

herriak daukazan arazoai aurre egiteko ahalmena handituko da.

Esan daigun eraginkortasun argudioak erabiltea gaiari benetan buelta xelebrea emotea dala. Izan be, zer enpresak gastauko leuke urtean bere diruaren lauren bat (61.000 € alkatearen kontzeptuan; 200.000 € inguru herrian inbersinoak egiteko) gerente bat kontratatetako? Badago munduan holangorik?

Baina eraginkortasunaren erispideak zentzurik ez badauka, zer esan moralaren erispideaz? Egia bada, EAJ-PNVk dinoan moduan, herriak beharizan handiak daukazala, zelan justifikau ahal da 4 eurotik bat alkateak eroatea? Krisi egoera honetan, zelan justifikau (hauteskundeetarako programan ezer esan barik) beste inon ez dagoan holango soldatarik. Zelan aldarrikatuko dogu politikearen duintasuna holango ebatziakaz?

ZEBERIOKO EH BILDU

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Sauku



Maiatzean eta bagilean sauku izeneko arbola txikiak ikusten doguz lorlan. Saukuaren egur gogorreko errametako frutu baltzak be mamitsuak izaten dira eta jan egin leitekez egosi ostean. Saukuaren orriak, barriz, bularreko eta azaleko gatxak osatuteko erabili izan dira medikuntza tradizionalan. Sauku berbea aspaldian hartu zan gaztelaniatik, halanda be era honeetara esaten da Arratian: sauku, seuku (séukue, agoskatuta), siku (Lemoan jaso) eta, lehenago txirulak egiteko egur proposa zalako, plausta/plauta. Batuaz, intsusa da.

## ERETXIA

### Eta gabarrea zer?

Arastiko seirak Bilbon, jentetzea zuri-gorritz jantzita kaleetan zehar. 9 urteren ondoren barriz be Ligako txapel-dunak dira Athleticen neskak, jagokon moduan ospatu beharreko lorpena. Abesti eta animo oihuen artean bildu gara udaletxe aurrean, hor datoz jokalaria, Begoñako basilikatik behera kapota bako autobusean saltoka. Ere-serkia ozen eta merezitako txalo zaparrada luzea. Ha-ta guzti be, zaleen poz arpegiaren artean hase-re eta sumindura nabari dira, holango egun pozgarri bategaz bat be ados ez datozen sentimenduak. Zabaldu dira bakoiko ateak, Ligako kopea Athletic zale guztiai eskeintzeko ordua da, baina oihu bat errepikatzen da jentearen artean: Eta gabarrea zer?

Askok ez dogu ibaian behera ikusteko aukerarik izan, baina ondo baino hobeto dakigu Athleticen garaipen handien ikur nagusia dala. Irrikaz zain gagoz, aterateko aukerea noz agertuko. Hainbat final jokatu doguz atzen urteotan, eta horreetan guztietan Athletic zaleen ametsetako bat egia bihurtzeko prest egon da ontzia. Garaipenak aldiz, ez gaitu gehiegi maite, eta iges egon dau behin eta barriz gure eskuetatik. Aurreko urtean mutilak Espainiako Superkopa eskuratu eben Bartzelona handiaren aurka, meritu handiko garaipena. Ha-ta guzti be, ohiturak agintzen dauan moduan, Kopea edo Ligea moduko garaipen handiakaz ateratekoa da gabarrea, beraz, beste behin esperoan jarraitu behar.

Azkenean heldu da, garaipen handiaren eguna. Neskak ikaragarri burukatutako Liga Txapelketea lortu dabe, horrenbeste urteren ondoren, heldu da 5. titulua. Zaleak ospakizun gogoz, gabarra usaina Bilboko kaleetan, baina ez, ez da atera, eta ondino ez dakigu zergaitik.

Txikitatik erakutsi deuskue Athletic desbardina dala, bere filosofiak eta futbola ulertzeko moduak berezia egiten dabela.



### NAIA TOTORIKA

Arratia Futbol Taldeko jokalaria

Taldearen jarraitzaileok odol zuri-gorria daroagu eta Athletic zalea izatea futboletik askoz harago doan zeozer da, batzean gaituan sentimentua eta Athletic Club-a handi egiten dauana. Handitasun horretatik egin eban bere sasoiaren andrazkoen futbolaren aldeko apustua. Gitxi dira andrak horrenbeste babestu eta bultzatu dituen klubak. Baina, 5. Liga Txapelketearen garaipen honek be ez dau merezidutako ospakizuna izan.

Eguneroko lanak, lesinoak, botatako izerdiak eta jausi eta barriz altxatzeko egin beharreko esfortzuak ez dau genero desbardintasunik egiten, ondorioz, eskuratutakoaren ospakizunak be ez leukie desbardintasunik egin behar. Ez da inon zehaztu gabarrea gizonezkoak bakarrik erabiltekoa danik, eta hau ez aterateko emondako argudio guztiak atxikia merkearen usaina hartzean dabe.

Egia da andrazkoak ez daukiela gizonezkoak besteko jarraipenik eta horrek ospakizunetara jente gitxiago hurreratzea suposatzen dauala. Baina, argudio honeri helduta ezezkua emotea tristeegia da. Ohiturak denporeak aurrera egin ahala momentuko egoeretara moldatzen dira, eta ziurra da, baegoala gabarrearen ibilbidea nesken ospakizunera egokitzeko aukerea.

Pena izan da. Athletic Club-ak andra eta gizonezkoen bardintasunaren aldeko ikur bilakatzeko eta tristeagoa dana, urian bildutako milaka zaleen artean egozan umeai benetan Athletic desbardina dala erakusteko aukera parebakoa galdu dau.

Gabarreak momentuz lotuta jarraituko dau, nonoz guztiok alkartuko gaituan ospakizun bategaz ibaian behera ikusteko daukagun esperantzeagaz batera, lorpena andra edo gizonezkoen eskutik datorren begiratu barik.

Bitartean, Zorionak neskak! Zuek be Athletic zarie!



**BATZ** 50 URTE

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

**IZAN GINAN...**

**...BAGARA ETA IZANGO GARA**





**LUMATUTEN**



**RAFA UGALDE**

**Soberanoa eta futbola: cosa de hombres**

**H**asi behar dot Athleticen neskak zoriontzetik, boskarenean ligan irabazi dabe eta. Horrek poztasun bi eta pena bat ekarten deustaz. Poztasuna alde batetik, nire taldeak ligan irabazi dau lako; bestetik, andrazkoen futboleko oraindino Athletic moduko talde batek Espainiako ligan irabazi ahal dau lako. Gizonezkoen futboleko Espainiako liga prostituituan, ez dago konpetitzen; diruaren banalitateak galdurazko egin ditu eta kirol horren inguruan egoazan erromantizismo papurrak (Athletic zaleok oraindino apur-apurren bat badaukagula esango neuke).

Baina ez dagigun haria galdu, Athleticen neskak hasi gara eta. Eztabaide sortu da gabarra atera behar dala, atera behar ez dala. Hasereren bat be izan da tartean, gabarra atera ez dalako; Emakundeko ordezkariaren baten adierazpenak be bai (Euretaroren bat joan ete da nesken partidurik ikusten?). Ez dakit nik, bariz, horrek

ardurarik ete daukan, eta ez dinot gabarra atera behar ez danik, ez atera behar danik, ez dot horretan sakondu gura; baina badago Athleticen andrazkoen futbol taldea dala-ta, gogora jatorozan zalantza batzuk, eta hainbat itaun.

Athleticen andrazkoen taldeak domeka guztietan eukiten dau partidua, batzuetan telebistatik be emoten dabe; baina gutariko zenbat joaten gara futbol zelaira gure neskak animetan? Zenbat bajatan gara etxe ondoko tabemara nesken partidua ikusten? Tamalez, bizkaitar gehiago joaten da tabemara Bartzelonaren eta Real Madrilaren (ez da hainbeste urte kantetan genduala *Ala Madrriid, ala Madrriid, el equipo del gobierno la vergüenza del paissis*) partidua ikusten, edo Champions Leagueko partidua arrotzak. Esango neuke egin beharko geunkean ahalegina hori izan beharko litzakela, nesken partidua gehiago ikusi, futbol zelaira joanda zein tabemetan alkatuta lagunak nesken partidua be ikusteko. Andrazkoen kirolak eskertuko leuke, Athleticen neskak be bai, tabemariak be bai, eta herietako giroak be bai. Hori egiten ez dogun bitartean, TVEko aspaldiko iragarkiak esaten ebana jatoroz gogora: Soberano es cosa de hombres. Eta futbola be bai, penagarria bada be.

Eta ez pentsau neskak ligan irabazi izanak eragin deustan penea ahaztu jatanik, ez. Hauxe da: jokalariei Bilbon egin eutsen harreraren Foru Aldundiko ordezkaria erderaz, Bilboko alkatea erderaz, Athleticen presidentea erderaz, eta taldeko kapitaina erderaz. Negargaria! (Eskerrik asko Mikel San Jose, igazko Superkopa irabazi ostean Bilboko udaletxe bakoitiko euskera hutsean egitegaitik). Napar batek egin behar euskeraz hainbeste bizkaitarren artean!

**ZERTZEAN**



**ITSASO BENEDICTO**



**BEGI TXINDORRA**

**N**egua joan eta udan sartu ginan aspaldi. Udabarria, uda edo udagoiena, euskeraz negua ez dan guztia uda da-eta. Ia amaitu da udabarria, eta udako solstizioagaz batera udan sartuko gara bete-betean. Honezkeroda noz helduko gagoz danok: udako oportetako atsedeneren gose eta udako argiaren egarri gara.

Egarri handiak asetzeko urtesasoia da uda. Eta ez bakarrik arimarenak, gorputzarenak be asetu egin behar dira. Eta horretarako, ur garden eta freskoa ez jaku falta Arratian: edozein mendi ibilbidetan, iturri ederrak topaiko doguz.

Iturri batzuk txukun eta zainduta dagoz, beste batzuk, barriz, sasiak tapauta. Arantzazukoak berbarako, lehenengo kategorian sartzean dira. Orain dala gitxi iturriak barritzatu eta Iturrien Bira egin eben Arantzazun. Partaideak iturri bakoitzean kartela ipini eben iturriaren izenagaz, eta iturriagaz lotutako antxinako kontuak entzuteko aukerea izan eben. Hamar iturritan hamar tragu egin ostean, egarririk ez.

Baina ura edanda gero, egarri guztiak ase?  
Ai, Maritxu, eder galant hori... nora zoaz?



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gouzatzea  
Luzetaketaren Instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
Bilgintza Industrialeko E2 Pab. 48 142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Fax: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisl.com

**agoa** haje klinikak  
Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
Marina Urquiza Koldos  
Cabrera  
Bilobari 1, behe  
48140 Igome-Steak  
T. 94 632 58 39  
Nafarroa Zerketa 100  
R.P.L. IVS

**OPEL**  
**Ibaigane, S. Coop. Eka.**  
Eskuzkoa, 18  
48930 LERIOA (Bizkaia)  
Telefono: 94 672 51 22  
94 672 51 23  
Fax: 94 672 51 21

**GARANTXE**  
Autoeskola  
TEORIA BUKARRAZ  
JOSU BERMEZ  
Bilbenerako A.I. A. 670 4  
Lanbidearen Agiri: 81  
Telefono: 94 672 51 22  
94 672 51 23  
garantxe@guadalupe.com

## UBIDE

# Antxinako erritoak sanjuanak ospatuteko

Arbola eta sua izaten dira Ubiden herriko jaietako protagonistak.

### Erredakzioa

Europako udabarriari lotutako antxinako ohitureari jarraituz, herritarrek basoan arbol handi bat moztu eta herriko plazara eroango dabe bertan altxatzeko. Sua be biztuko dabe San Juan bezperan Ubiden, udako solstizioari lotuta eta gurean oso zabaldua dagoan ohitura da hau. Esti eta Olatzen kantaldia, herritarren Play-Backa eta herri afaria besteak beste, animauko dabe herriko jaigiroa.

Eszenalekuak eta jai azpiegiturak montetako, hilaren 17 eta 18an batuko dira herritarrek. Kentzeako, barriz, garagarriaren 1 eta 2an.

### Bagilak 23, eguena

**17:00**etan, arbolaren bila joateko plazan alkartu.  
**19:00**etan, arbola zutitu.  
**20:00**etan, afaia eta edari trukea.  
**23:00**etan, sua eta Esti eta Olatzen kantaldia.


### Bagilak 24, barikua

**13:00**etan, meza ostean baraus-

karria Adarhots taldeak girotuta.  
**14:00**etan, elearrak etxeko atean ipini dabezanen artean zozketea egingo da.  
**18:00**etan, herritarren Play-Backa.  
**20:30**ean, parrillada herrikoia.  
**22:15**ean, pelota partidua.  
**24:00**etan, Tarantistak animazioa.

### Bagilak 25, zapatua

**10:00**etan, puzgarriak eta umeentzako jolasak.  
**17:00**etan, ginkanea eta jolasak.  
**21:30**ean, herri afaria bertsolariakaz.  
**23:15**ean, Dantzaldi erromeria.



## ARRATIA

# Agenda 21eko Eskolen Foroaren proposamenak

### Erredakzioa

Arratiako Agenda 21eko Eskolen arteko Foroa batzartu zan maiatzean. Bertan, partaideak urtean egindako lana eta udalari aurkeztutako proposamenak aurkeztu eta Arratia mailan hartuko diran konpromisoak landu zituen.

Ikastetxeak udalari hamaika proposamen egingo deusez. Proposamen honeen helburua, beste gauza batzuen artean, bertako landareak ezetutea eta jagotea eta espezie inbaditzaileak kontrolatea da. Holan, ikastetxeetakoak, landaketa barrietan bertako zuzatzaileak landatzea edota panpako lezkak kentzea proposatzen dabe.

### Auzo konpostajeari Artea

Bagilean, Artea, auzo konpostajeari ipiniko dabe martxan etxetan sortzean dan hondar organikoak birziklatzeko. Auzo konpostajeari, komunitatean, taldean, egiten dan konpostajeari da eta etxeko hondar organikoak konpost bihurtzen da bertan. Lortutako konpost hau herriko lorategietan erabili ahalgo dan ongarri naturala da. Auzo konpostajeari parte hartzeako, Arratiako Udalen Mankomunitateak Bizkaiko Foru Aldundiarren laguntzagaz, beharrezko materiala emongo deuse parte-hartzailei.

### Bagilak 24, barikua

**12:00**etan, meza eta trikitaliak.  
**18:00**etan, Briska eta Mus Txapelketak.  
**20:00**etan, auzoko aparkalekuan pintxo-potea.  
**22:00**etan, erromeria Joselu anaiak taldeagaz.

### Bagilak 25, zapatua

**09:30**ean, auzolanean Indusi errekearen garbiketea. Ondoren mokadutxoa garbituten parte hartu dabenentzat.  
Jaien amaieraa.

### Elorriaga (Lemoa)

#### Bagilak 25, zapatua

**12:00**etan, meza.  
**13:00**etan, barauskarria.  
**13:15**ean, herri kirolak.  
**14:00**etan, Igel Txapelketea nagusientzat.  
**14:00**etan, Dardo Txapelketea umeentzat.  
**17:00**etan, herri kirolak. Umeentzako jokoak.  
**17:30**ean, Mus Txapelketea.  
**19:00**etan, Bola Joko Txapelketea.  
**20:00**etan, txixi-burruntzia.  
Egun osoan zehar Gaztetxeak ipinitako txosnea.

## BEDIA

# San Juan sua eta gehiago Bediako jaietan

Gaubeko hamabietan biztuko dabe San Juan bezperako sua Bedian, urteko gaurik laburrena argituteko.



### Erredakzioa

Jaietako lehenengo gau majikoan suaren inguruan batuko dira bediatarrek, suak gauza txarrak erre eta onak gorde dagiazan.

Jaietan, majikoak izan daitezke gau asko. Izan be, Jokaldi, Egan, Zeinke, ETS eta Drindots taldeak gaubak musikaz beteko ditue eta jantzan egiteko aukerea egongo da. Egunez, beste ekintza batzuen artean, lehiaketa gastronomikoak, umeentzako jolasak, zunbatoia eta karta jokoak egongo dira.

### Bagilak 19, domekea

**10:00**etatik **14:30**ak arte, XVI. Eskulangintza eta Elikagaien Azokea.  
**14:30**ean, Bediako jubilatuen bazkaria.

### Bagilak 23, eguena

**20:00**etan, jaien hasikerako txupina, trikixax eta dultzainaz alaituta. Sardina jana.  
**20:30**ean, Igel Txapelketea Laguntasuna tabernak antolatuta.  
**21:00**etan, erromeria Jokaldi taldeagaz. Ondoren, Play-Backa (mozorrota eta gozatu).  
**24:00**etan, San Juan sua.

### Bagilak 24, barikua

**12:00**etan, Meza nagusia.

**19:00**etan, Tortilla Lehiaketarako izen emotea.

**20:00**etan, pala partidua (neskak).

**20:30**ean, tortillen aurkezpena.

**20:30**ean, korru jantzak.

**21:30**ean, herri afaria.

**23:00**etan, erromeria Egan taldeagaz.

### Bagilak 25, zapatua

**12:00**etan, IX. Paella Lehiaketarako izen emotea.

**14:00**etan, paellak aurkeztu.

**17:00**etan, Mus Txapelketea Batzokiak antolatuta.

**17:00**etan, artista txikiak. Umeentzako tailerrak.

**18:00**etan, Piratak Herri kirol taldea.

**22:00**etan, kontzertuak: Zeinke, ETS eta Drindots taldeak.

Arratiara, Galdakaora eta Zornotzara autobusa **02:30**ean eta **05:00**etan.

### Bagilak 26, domekea

**12:00**etan, eskupelota partidua (herrikoak tartean) eta pala partidua (neskak, herrikoak tartean).

**18:00**etan, txakurren erakusketea.

**19:00**etan, eskupelota partidua.

**20:00**etan, Zunbatoia, Deiene eta Jorgeren eskutik.

### Bagilak 27, astelehena

**12:00**etatik **13:30**era, puzgarriak eta jokoak.

**17:00**etatik **19:30**era, puzgarriak, jokoak eta bitsa.

**17:00**etan, XXXI. Briska Txapelketea. Bikotekide bat behintzat Bediako. Izen emotea 6 euro bikoteko.

**20:00**etan, txokolata eta jaien amaierako txupina.

## ARRATIA

# San Juan bezperan suak biztuko dabez auzuneetan

### Erredakzioa

Arratiako hainbat herri eta auzuneetan, San Juan suak biztuko dabez San Juan bezperan, hau da, bagilaren 23an. Arantzazun zortziretan batuko dira herritarrek plazan sardinak jan eta sua biztuteko. Hurrengo egunean, Eskobien atzetik kale antzerkia egongo da arrastiko zarpiretan sanjuanak ospatuten segiduteko. Areatzan Walkman kale antzerkia egongo da **20:00**etan, eta ostean sardinak eta urdaia jan eta sua biztuko dabe Zubizarran. Diman, sua **20:30**ean biztuko dabe frontoi ondoan. Lemoako Tallerretan **19:00**etan izango da suaren inguruko zitea.

Zeanuriko Altzuagan, Igorreko San Juanen edo Dimako Oban be sanjuanak ospatuko dabez; Zeanuriko Undurragan eta Lemoako Elorriagan, barriz, sanpedroak.

### Altzuaga (Zeanuri)

#### Bagilak 23, eguena

**15:00**etan, txupina.  
**21:00**etan, sardinak eta sua.

#### Bagilak 24, barikua

**12:00**etan, meza eta barauskarriak.

#### Bagilak 25, zapatua

**21:00**etan, auzo afaria eta erromeria Diversions taldeagaz.

#### Bagilak 26, domekea

**12:00**etan, meza, barauskarriak eta zozketea.  
**19:00**etan, Bola Txapelketea eta umeentzako jolasak.

### San Juan (Igorre)

#### Bagilak 23, eguena

**19:00**etan, txupina eta jaien hasikerrea.  
**20:00**etan, sardina jana. Ondoren erromeria trikixegaz.  
**22:30**ean, San Juan sua. Arratiako Musika Eskolako trikitaliak.

BEDIA



**Bediako Udalak eta jai batzordeak**

Gora San Juan jaiak!

**JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ**



## AREATZA/LEMOA

## Hilaren 18tik Areatza eta Lemoako igerilekuak zabalik

## Erredakzioa

Areatza eta Lemoako aire zabaliko udal igerilekuak bagilaren 18an zabalduko dira eta urri lehenengora arte egongo dira zabalik, arratiarrak uda partean Arratiatik urten barik freskaldi bat hartzeako aukerea izan dagien.

Areatzako igerilekuak bagilaren 18tik urri lehenengoaren 9ra arte egongo dira zabalik, goizeko 11:00etatik 20:00etara. Prezioak desbardinak izango dira lanegunetan eta jaiegunetan. Lanegunetan, helduak 4 euro eta umeak 2 pagau behar izango dabez eta jaiegunetan 5 eta 3, hurrengo hurrengo. Sasoi osorako bonoak erosi ezker, barriz, herrikoak 55 euro pagau behar dabe familiako bonoa edo 35 banakakoa persona helduarentzat eta 25 umearentzat bada. Beste herrietakoak, familiakoa 90 euro, eta banakakoak 55 euro helduak eta 35 euro umeak pagau behar dabez. Igorre eta Arteako Udalakaz egindako hitzarmenari esker, Areatzako herritarren moduan pagauko dabe Igorre eta Arteakoak.

Lemoako igerilekuak Lemoan aire zabaleko igerilekuak bagilaren 18tik urri lehenengoaren

## Lemoako igerilekuak

Lemoan aire zabaleko igerilekuak bagilaren 18tik urri lehenengoaren

18ra arte egongo dira zabalik. Goizeko 11:00etan zabalduko ditue igerilekuak, eta 19:30ean zarratuko bagilean, 20:30ean garagarriean; 20:00etan abuztuan eta 19:30ean urri lehenengoan.

Prezioai jagokienean, 4 eta 26 urte bitartekoak 3 euro pagau behar dabez, eta nagusiak 4 euro Lemoan erroldatuta badagoz eta 4,5 ez badagoz Lemoan erroldatuta. Lemoako jubiladuak eta langabeak 3 euroko prezioan erabili ahal izango dabez udako piszinak.



Areatzako igerilekuak.

## ARRATIA

## Lurralde Antolamentuaren Gidalerroak berrikusteko prozesua abiatu dau Jaurlaritzak

## Erredakzioa

Lurralde Antolamentuaren Gidalerroak (LAG) egoera barrietara egokitzeko, Eusko Jaurlaritzan berrikusteko prozesua ipini dabe martxan. LAGak berraztertze lan honetan parte hartzeako aukerea egongo da euskal lurraldean zehar egingo diran 16 tailer parte hartzaileetan. Igorrean eremu funtzionaleko tailerra bagilaren 28an, 18:00etan izango da Igorreko Kultur Etxean.

Tailerrean, paisaje, azpiegitura, herri eta landa eremu, ura eta energiari buruz eztabaidatuko

dabe partaideak. Tailer presentzialetara bertaratu ezin daitezkezanak Ireakia webgunean parte hartu ahal izango dabe. Gunean argitaratu da LAGak berrikusteko oinarriko dokumentua (dokumentu ejekutiboa), testuari ekarpenak egiteko. Gainera, gai bakoitzean hasitako eztabaidetan eta inkestetan online parte hartzeako aukerea dago. Sare sozialetan be parte hartu ahal izango da; Twitter-en, #DOT\_Euskadi traolagaz, eta Facebook-en, Lurraldea profilean.

LAGak berrikusteko prozesuak 3 urte inguru iraungo ditu.

## AREATZA

## Argazki kanpaina martxan GEDk

## Erredakzioa

Areatzako Gure Esku Dago (GED) Batzordeak, maiatzean, 2016-2018 egitasmoaren aurkezpena egin eban. Batzarrean azaldutakoaren arabera, Gure Esku herri mobimentua fase barri baten sartu da, "erabakiaren aroan", hain zuzen be. Fase honetan, 2018ra bitartean, ahalik eta herri gehienetan herri konsultak antolatzea da helburua.

Areatzan be herri galdeketea antolatu gura dabe, baina horretarako, herritarren "babes eta parte hartze handia behar dira". Herritarren parte hartzea bultzatutako, udarako "Oporretan ere zure esku" kanpaina antolatu dabe Areatzan.

## "Oporretan ere zure esku" argazki kanpaina

Kanpainan parte hartzeako, udako

oporretako argazkiak bialdu behar dira gureeskudago.areatza@gmail.com helbidera. Argazkietan Gure Esku Dagoko ikurren bat agertuko da eta Areatzako jaietan panel baten ipiniko dira jasotako argazkiak, holan, jaietan be, erabakitzeko eskubidearen aldeko aldarikapena egiteko.

Areatzako GEDk jakitera emon dauanaren arabera, 2016an 36 udalerritan egingo da herri galdeketea, eta datorren urtean, beste hainbat herri eta eskualdek iragari dabe galdeketea egingo dabela. "Bigarren olatura batuko diranen zerrendea hazten joango da datozen hilabeteetan" dinoe. "Borondateak ehundu, bidea adostu eta etorkizuna erabaki. Hiru pausu horreek osotuten dabe gure bide orria. Etorkizunera begira gagoz, pausuak emonaz. Galdeketen bigarren olatua hartzeako ahaleginak egingo doguz" dinoe Areatzakoak.

## ARANTZAZU

## Jubiladuak botako dabe txupina San Pedro jaiari hasikerea emoteko



## Erredakzioa

Garagarriaren 1ean botako dabe txupina jubiladuak Arantzazun San Pedro jaiari hasikerea emoteko, baina jubiladuak lehenago hasiko dira jaigiroaz disfrutetan: San

Pedro egunean eurentzako kopautxoak egongo da eta. Umeen eguna garagarriaren 2an izango da. Olgetan ibilteko aukerarik ez da faltauko egun horretan. Gazteentzat, kontzertuak eta erromeriak. Jokaldi taldeak zarratuko dauz Arantzazuko sanpedroak.

## Bagilak 29, eguaztena

12:30ean, mezea.

13:30ean, jubiladuentzako kopautxoak.

## Bagilak 30, eguena

19:00etan, Durangoko Abesbata eleizan.

## Garagarriak 1, barikua

19:00etan, txupina jubiladuen eskutik. Buruhaundiak.

19:30ean, Larrain jantza Arantzarte taldeagaz.

20:00etan, batukadea eta poteoa.

21:00etan, parrilladea Herriko

Tabernan. Ondoren kontzertu bi eta erromeria Honat taldeagaz.

## Garagarriak 2, zapatua Umeen eguna

10:00etan, puzgarriak frontoian.

10:30ean, umeentzako jolasak Zaztaparrak Asti Taldearen eskutik.

13:00etan, Igel jokoa plazan.

14:30ean, Paella eta Tortilla Lehiaketetako paellak eta tortillak aurkeztu plazan.

18:00etan, patin zirkuitua.

18:00etan, Dardo Lehiaketea eta Futbolin Lehiaketea Herriko Tabernan. Izen emotea Herriko Tabernan.

20:30ean, DJa eta ondoren karaokea.

## Garagarriak 3, domekea

10:00etan, mezea.

13:00etan, triki poteoa.

18:00etan, kale antzerkia plazan. Ganso & Ciaren *Walkman*.

18:30ean, Mus eta Briska Txapelketak Montero eta Herriko Tabernan. Izen emotea taberna bietan.

20:30ean, parrilladea plazan.

21:30ean, erromeria Jokaldi taldeagaz eta jaien amaierara.

## ARRATIA

## Bidezko merkataritzako produktuak

## Erredakzioa

Caritas eta Igorreko Iturbe okindegiaren arteko hitzarmenari esker, arratiarrak bidezko merkataritzako produktuak edozein egunetan erosi daikiez. Izan be, hitzarmena sinatu arte, Caritasek eskeinitako produktuok eskualdeko azoketan bakarrik egozan salgai.

Azukrea, kafea eta txokolatea Bil-

boko edozein bidezko merkataritzako produktuak dendetako prezio bardienean saltzean dira Igorren. Orain, Caritas Arratia negoziazioetan dago Areatzan eta Zeanurin be holango "denda lagunak" ipinteko.

## Bidezko merkataritza

Bidezko merkataritza garapen bidean dagozan herrialdeak merkataritza egitura nagusian sufriduten daben esplotazio egoerari aurre egitea dauka helburutzat. Ekoi-leiaren euren produktuakaitik prezio duina pagetan jakie, giza eskubideak errespetatuz; hau da, umeen lana baztertuz, sexuen arteko bardintasuna bultzatuz, eta ingurumena zainduz.

## ARRATIA

## Urkiolara, Paduako San Antoniori errogatibea egiten

## Erredakzioa

Bagilaren 18an egingo da errogatibea Urkiolan, Paduako San Antonio santutegian. Tradizioari jarraituz, San Antonio egunaren osteko zapatuan egingo dabe arratiarrak errogatibea. Aurten Dimako parrokiak daroa ardurea

baina Arratiako parrokiak eta herri guztietako jentekak, eta arratiar jatorria euki eta kanpoan bizi diran askok be parte hartzean dabe. Igaz 400 inguruk. Aurten go lemea da "Lur hau geurea da. Ondo zaindu daigun".

Urkiolara autobusez zein oinez joan daiteke. Igaz, Arratiako herri

guztietatik pasetan ziran lau autobus ipini ebezan. Aurten be autobusak ipinteko laguntza eskatu deutso Arratiako Eleizak Mankomunitadeari.

Dima, Igorre eta Zeanuritik taldean oinez joateko aukerea dago. Diman, 06:00etan urtengo dira plazatik; Igorren, San Antonio ermitearen ondoan da hitzordua 06:00etan eta Zeanurin, San Antonio txikerra ermitearen ondoan 07:30ean.

Autobusak, 13:00etan itzuliko dira.

## ARRATIA

# Herrietako jaietatik etxera bueltetako autobusak ordutegia aldatu dau

### Erredakzioa


Udako jaietan gaubean eta goizeko ordu txikietan etxera bueltetako, debaldeko autobusa erabili ahal izango dabe Arratiako gazteak. Aurtan, aldatu egin da ordutegia; lehenengo autobusa 02:30ean urten go da, eta bigarrena, 05:00etan.

Zerbitzua bagilaren 13an hasi zan, Igorreko jaietan, eta urrietara arte iraungo dau; Galdakaoko Santakurtzetako jaietara arte, hain zuzen be. Zerbitzua Zornotzako Karmenetan (garagarilaren 15etik 27ra) eta Bilboko Aste Nagusian (abuztuaren 20tik 28ra) be eskeiniko da. Guztira, Arratiako Gau-Txori ekimenak 62 autobus-zerbitzu eskeiniko dauz programak irauten dauan bitartean.

Zerbitzua Arratiako Udalen Mankomunidadearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gazteria Sailaren

artean sinatutako hitzarmen bateri esker eskeiniko da. Aldundiak zerbitzuaren kostuaren % 65 finantziauko dau, hau da, 18.000 euro.

Durangoko Liburu eta Disko Azokarako be lotura-autobusa egongo da.



2016ko JAIIETATIK ETXERA BUELTATZEKO AUTOBUSA			
<b>ARRATIA</b> 02:30ean 05:00etan	<b>ARRATIA</b> 02:30ean 05:00etan	<b>ARRATIA</b> 02:30ean 05:00etan	<b>ARRATIA</b> 02:30ean 05:00etan
<b>ARRATIA</b> 02:30ean 05:00etan	<b>ARRATIA</b> 02:30ean 05:00etan	<b>ARRATIA</b> 02:30ean 05:00etan	<b>ARRATIA</b> 02:30ean 05:00etan
<b>ARRATIA</b> 02:30ean 05:00etan	<b>ARRATIA</b> 02:30ean 05:00etan	<b>ARRATIA</b> 02:30ean 05:00etan	<b>ARRATIA</b> 02:30ean 05:00etan

## ARRATIA

# LABek mozinoak aurkeztu ditu azpikontratetan klausula sozialak bermatu daitezkan

### Erredakzioa

LAB sindikatuak Igorre, Lemoa eta Dimako Udaletako pleguetan klausula sozialak txertatzeko eskaerea egin dau mozinoen bitartez. Urtea amaitu aurretik, mozinoak gainontzeko herrietan be aurkeztea dauka helburu sindikatuak.

Klausula sozialetan debekatzen da hitzarmenak ez apliketea. Pleguetan jasoko litzateke zerbitzua emoteko zenbat langile behar diran eta kopuruari eutsiko jako beti. Eta klausula horreetan langileen subrogazioa, genero bardin-

tasuna eta euskerearen erabile- rearen bermea jasoten dira.

LABen ustez, Euskal Herriko erakundeetan lanak edo zerbitzuak azpikontratatea agintean egon diran alderdi politikoen ebatzia izan da, ondorio larriak ekarri dituana. "Argi daukagu herritarrei eskeintzen jakiezan zerbitzu publikoetako lanak langile publikoak bete behar dituela, baina iparra galdu barik. Egoerea ikusita preminazko neurriak hartu behar dirala uste dogu, eta azpikontratazio honeetan emoten dan prekarizazioagaz amaitu behar dala" azaldu dau LABek prensa-ohar batez.

## DIMA

# Kirola eta musikea, Dimako jaietako perejila

San Pedro egunean, arrastiko zazpiretan Gaztebarri Dantza

Taldeak txupina botako dau jaiak hasikerea emoteko.



Igazko sanpedroak

Argazkia: Dima Berriak

### Erredakzioa

Garagarilaren 3ra arte izango dira herriko jaiak, eta ospatutako jai egitarau bete prestatu dabe dimoztarrak. Egunez kirola egiteko aukera asko: Boulder Txapelketa Herrikoia, herri kirolak, pelota partiduak eta kuadrilen arteko probak egongo dira. Gaubez, barriz, erromeriak eta kontzertuak hartuko dabe protagonismoa. Lehiaketa gastronomikoak, antzerkiak eta kaleko ikuskizunak be ez dira faltauko jaietan.

### Bagilak 23, eguena

18:00etan, Pelota Eskolako finalak.  
20:30etan, San Juan sua.

### Bagilak 29, eguaztena

12:00etan, Mezea.  
13:00etan, 85 urtetik gorakoen- tzako omenaldia Narbaiza eta Areitio bertsolariakaz. Ostean, jubiladuentzako bazkaria.  
18:00etan, Boulder Txapelketa Herrikoia.  
19:00etan, txupina Gaztebarri Dantza Taldearen eskutik.  
19:15etan, jantzak Gaztebarri Dantza Taldearen eskutik.  
20:00etan, kuadrilen arteko proben I. proba.  
21:00etan, jantza-poteoa.

### Bagilak 30, eguena

11:00etan, umeentzako tailerrak.  
18:30etan, Pintxo Txapelketea eta pastel dastaketea ume eta gazte- entzat.  
19:00etan, *Euskararen taupadak* Irrien Lagunen ikuskizuna.  
20:00etan, Tortilla eta Tostada Lehiaketak.  
22:00etan, erromeria, Ingo al deu taldeagaz.

### Garagarilak 1, barikua

17:30ean, Talentu Lehiaketea.  
18:30ean, kale animazioa Ttex elektrotxarangeagaz.  
19:30ean, umeentzako herri kirolak.  
20:30ean, herri kirolak: Inaxio Perurena harri jasotzailearen erakustaldia, Badaiotz sokatira taldea vs. kuadriletako andrak, Olar Herri Kirol Taldearen erakustaldia.  
Dimako Alkarregaz eta Bakaikuko GEDren eskutik txistorra jana.  
21:30ean, esku pelota partiduak frontoi txikian: Andren partidua.  
Dimako Plazako II. Txapelketako finala.  
23:30ean, Play-Backa.  
01:00etan, kontzertua: Patx&Run eta DJ Ismael.

### Garagarilak 2, zapatua

11:00etan, umeen duatloia.  
14:00etan, herri bazkaria (mozo- rrotuta. Gaia: 80ko hamarkadea).  
17:00etan, kuadrilen arteko probak.  
18:30ean, nesken pala partidua eta Bizkaiko Open pelota jaialdia.  
20:00etan, talo jana.  
20:30ean, kale animazioa.  
23:00etan, kontzertua: MG taldea.  
24:00etan, euskal preso eta igesla- rien aldeko ekitaldia.  
24:30ean, kontzertua: Itziarren semeak taldea.  
02:00etan, erromeria, Oxabi taldeagaz.

### Garagarilak 3, domekea

14:00etan, Paella Lehiaketea.  
18:00etan, lankidetzak jolasak umeentzat.  
19:00etan, bertsolariak: Uxue Alberdi, Alaia Martin, Onintza Enbeita eta Nerea Ibarzabal.  
20:45ean, antzerkia. Karrika taldearen *Zapoi* antzezlan.

## ARRATIA

# Jaietan sexu erasoai aurre egiteko Beldur Barik Gunea egongo da

### Erredakzioa

Aurtengo jaietan, Arratiako Udalen Mankomunidadeko Bardintasun Zerbitzuak, Udalak eta andra alkarte eta talde feministak, Beldur Barik kanpaina jarriko dabe martxan. Helburua jaietan be, eraso sexistai aurre egitea da, "jaiak, gaba eta kalea gureak be badiralako, eta danok dogulako eskubidea jaietan disfrutetako" antolatzaileen arabera.

Holan, Igorreko jaietan Beldur Barik jarkerea landu eban Noka talde feministak Igorreko Udalaren laguntzeagaz. Bedian, hilaren 25ean, zapatua, Beldur Barik Gunea ipiniko dabe plazan 20:00etan. Beraz, herriko jaietan Beldur Barik Guneak egongo dira, eraso sexisten kontrako materialagaz eta musikeagaz, arazoa bistaratu eta aurre egiteko.

### Genero identitatean oinarritutako diskriminazioaren kontra behar

Arratiako Udalen Mankomunidadeak (AUM) maiatzaren 17ko eta bagilaren 28ko kanpainak lotu dauz, azken finean, homofobiaren kontrako eta aniztasun sexualaren aldeko egunak diralako hurrengo hurrengo. Holan, AUMko Prebentzio eta Bardintasun Zerbitzuak, udalak batera, ekintzak antolatu dabez orientazio sexuala eta genero identitatean oinarritutako diskriminazioaren aurka eta aniztasun sexualaren alde egiten jarraituteko.

Ekintzen artean, gazteleketan antolatutako sexualidadeari buruzko tailerrak, udalekuetako begiraleai hezkidetzaren eta aniztasunaren inguruko prestakuntza, gurasoentzako eta ikasleentzako saioak eta adierazpen instituzionala dagoz. "Arlo eta esparru guztiak landu eta landuko dira Arratiako herrietan. Izan be, ezinbestekoa da dibersidade sexualari zor jakon errespetua azpimarratzea, bardintasunean eta aniztasunean oinarritutako gizartea eregiteko" dino Miren Urresti AUMko Bardintasun teknikariak.



**Jai batzordeak eta Dimako Udalak**

**Gora San Pedroak!**

**JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ**



## ARRATIA ERREKEA

# Laminarik ez Arratia errekan


Gure haranari izena eta izana emon arren, eta eguneroko paisajeko elementu nagusietako bat bada be, Arratia errekea sarritan gure artetik ikustezin pasetan da.

**Alvaro Rabelli**

Bertoko kondaira batek dino bagileko San Joan eguneko goizean benedikatutako zekor gazte bigaz errekatik goldea pasau ei ebela bertan bizi ziran lamina guztiak desagertuarazoteko. Harrezkero, izena -eta izana- emoten deuskuen uretan ez dago laminarik. Egia dan ala ez dan, sartu gaiezala kalabazan. Kontua da bai Arratia errekeak, bai bere urak loditzen dabean dozenaka errekatxok eraso bat baino gehiago jasan izan eta jasaten segiduten dabela uragaz, errekatxak daukagun hartuemon eskasa eta kontzientziarino txarra dala eta, ondino lar eskasa egiten dan kontzientziarino

beharrerako. Gure ingurumeneko ardatz nagusia izan beharko leukenak gitxitan jasoten dau atentzinorik, eta lortzean dauanean, eztabaidarako izaten da, Areatzan eginiko beharrakaz suertau zan moduan.

Arratia errekea, eta bere adar txoak, eskualde honen zanak dira, mendirik altuenetatik bizia zabaltzen dabean zan modukoak. Arratia errekeak Zeanuriko Arrabapen, hau da, Aldamin, Arraba eta Itxina azpian sortzean diran iturrietan dauka jatorria. Gorbeia iparraldeko urak drainatzen ditu. Iturri horreetatik datozen Arbineta, Atxondo, Legorrandi, Uguna eta Sagarragabieta izeneko errekatxoak bat egiten dabe Ze-



Arratia errekea berezko landaretzaz jantzia.

anuriko Lanbreabe auzoan eta iparralderantz abiatzen da Arratia izenagaz. Hogeita bost kilometro beteten ditu Lemoan Ibaizabal errekeagaz bat egiteraino. Zeanuri, Areatza eta Arteako bestelako errekatxoetatik urak jaso eta gero, Igorren Dimatik datorren Indusi errekearen urak hartzean ditu. Indusi da erreka honen adar na-

gusia. Arratia errekeak eskualdeko ibar nagusia eratzen dau, eta badauka beste berezitasun bat, euki be; Arabako urak, Zadorraren sistemakoak be jasoten ditu Zeanuriko Barazarreko zentrallean, Undurragako urtegian Arratia errekearenakaz batzean diranak.

Eta urak ura dauka ilusino, dino beste esaera zahar batek.

Arratia errekeak be itsaso izateagaz amesten dau, eta harainoko bidean, bihurtuz bihurtuz, sigi-saga, uraren polpol lasaigarri gerizpe egiten deusie ingurumeneko hain beharrezkoak diran ibaiertzeko zugatzak. Urkiak (*Betula celtiberica*), haltzak (*Alnus glutinosa*), saratsak (*Salix*), zumarrak (*Populus nigra*), lexarrak (*Fraxinus*), hurrondoak (*Corylus avellana*), ereintzak (*Laurus*), intsusak (*Sambucus*) eta beste landara askok ertzetako baso atlantiarra osotuten dabe. Zugatzok ezinbestekoak dira errekearen egoera ekologikoari eusteko, izan be, ura fresko gordetan dabe arrainak bizi daitezcan, uroldeen kalteak gitxituten dabez, ertzetako lurren higadura eta munurrutuak ebitecan dabez, eta hamaika arrain, narrasti, hegazti, anfibio eta bisoi europarra lako ugaztunen berezko habitat-a da.

**Urak dakarrena, urak daroa**

Eta gure errekea oroimena be bada, memoria, gure lurrarena, historiarena, gizartearena. Pre-guntau, eta berak esango deus hango harri baten gainean baegoala lamina bat, goizero ule urrekarak orrazten zituana; eta bidea

149 €

139 €

**2016ko udabarriko eskaintzak**

**BADUZU EDUKI BEHAR DENA?**

**STIHL** **VIKING**

ZURE ESPEZIALISTA DENDAN SOILIK

**GARAJE  
FELIPE**

Garbe 2. Igorre (Bizkaia)  
Tel./Faxa 94 673 63 39  
garajefelipe@euskalnet.net

Montorra z/g. Amorebieta  
(Bizkaia)  
Tel./Faxa 94 630 90 39

[www.garajefelipe.es](http://www.garajefelipe.es)





Undurragako urtegia.

ahiztu jakon harrizko zubi zahar baten izena be emongo deutsu; eta hango baserriarena; eta horko errotearena; eta hemengo burdinolarena; eta beharbada bainuetxe eta fabrika askoren izenak be emongo deutsuz. Eta seguru, atzera be preguntau ezkeru, Arratiako tranbiaren azken unidadearen sekretua be kontauko deutsu.

#### Noiztik hona ez doguz umeak errekan bainetan ikusi?

Baina, Arratia errekearen arazoak larriak dira, bai eta Lemoa eta Bediatik igarotzen dan Ibaizabalek be, Bizkaiko erreka guztienak lakoxeak. Mendeetan bere urak eta inguruko lurak aprobetxau izan doguz soloak zabaltzeko, herriak eregitoko, errota, burdinola eta hidroelekrikai indarra emoteko. Lekua kendu izan deutsagu fabrikak altzetako, kamino azpian ostendu izan dogu, ubide motz

bihurtu dogu eta estolda hutsa izan da ur zikinatarako.

Arratia errekearen arazoak jaio bezain pronto hasten dira, bere iturri inguruko basoetan hain zuzen be. Konifera basoak ia suntsitu dau jatorrizko basoa, eta basoko lanak eurak iturri horreek askotan kaltetzen dabez. Gainera, Arratiaren urak eta bere adar batzuenak atoan topo egiten dabe hidroelektrikaren urtegiakaz (londogorta, Barazar, Undurraga...), arrain eta animalia askorentzat gaindiezinak dira zementozko hormatzarrakaz, eta etenbako arriskua beherago dagozan herrietzat. Urtegiok errekearen emari naturala be aldatzen dabe, ur horreetan bizia gax eginaz. Eurak dira zebra muskuilu inbaditzailea (*Dreissena polymorpha*) hedatzearen errudunak. Herrietara hurreratu ahala gauzak ez dira hobetzen, urteetako industrializazioak eta

garapen urbanoak leku askotan ertzetako desforestazioa ekarri dau, errekearen berezko ubidea zementozko horma estuen artean doa leku baten baino gehiagotan, erreka bera ikustezin bihurtuz eta uriola arriskua handituz. Industrialdeak pasata, zugatzen adarretatik zintzilik dagozan plastiko puska tristeak errekearen benetako egoeraz berba egiten deuskue. Eta amaitzeko, Lemoan, bokalea, presa baten hustubide hutsa baino ez dana, Ibaizabalgazko hartuemon naturalak ezinezko egiten dituana. Duintasun gitxi parke natural baten jaiotzen ei dan erreka batentzat, esango geunke.

#### Gure erreketan egindako lehengoratz lanak estetikatik asko daukie

Zerbaist egin da, ura garbitzeko saneamentu sarea zabaldu da eta Areatzan, esaterako, URA erakunde publikoak errekearen egoera hobetzearen egindako interbentzioa handia izan da, 1'7 milioeko kostuagaz. Horri ez jako polemikarik falta izan, izan be, askok interbentzino estetiko baino ez dala izan argudiatu dabe. Baina argi dagoana da oraingoz ez daukagula plan osorik Arratia errekarako, bere balio ekologiko, kultural eta ekonomiko jagoteko.



Bainatzea galarazota.



Areatzako herriguneko ibaiertzak URA-k egindako beharren ostean.

# ZAINDU GURE LURRA

## Materia organikoa konpost bihurtu

MATERIA ORGANIKORAKO  
POLTSA BIODEGRADAGARRIAK  
AMAITZEN JATZUZANEAN,  
HARTU EIZUZ DEBALDE  
ZURE UDALETXEAN  
EDO MANKOMUNITATEAN

EDUKIONTZI MARROIAN  
EDO AUTOKONPOSTAJEAN  
IZENA EMON GURA BADOZU, DEITU  
**94 631 17 17**  
TELEFONO-ZENBAKIRA  
EDO JO MANKOMUNITATERA



Konpostajearen bideak.  
Zuk erabagi.



**TXIRRINDULARITZEA****Oskar Garro: "Euskadiko txapela gura neban eta lortu dot"**

Oskar Garro igorreztarra sano tenporada ona dabil egiten. Maiatzean Ziklismo Egokitian, Euskadiko txapela lortu eban eta Espainiako Txapelketan be podiumera igo zan hirugarren eginda. Aurten Munduko Kopako saioetako bat Euskal Herrian jokatu da eta karrera honek azken emongo deuto amaiera denporaldiari Garrok.



Oskar Garro txirrindularia.

**Erredakzioa****Sano denporaldi ona egiten za-biz, Euskal Herriko txapeldun...**

Bai. Bideko karreran Euskadiko txapela lortu neban eta erlojupekoan bigarren sailkatu nintzan. Maiatzaren 14 eta 15ean izan zan. Erlojupekoa Andoainen izan zan eta gero domekan Zarautzen izan zan bideko Euskadiko Txapelketa, 62 km.ko lasterketa, eta hor lehenengo postua egin neban eta Euskadiko txapelduna naz. Sano pozik nago, ze hori zan nik gura neban txapela eta lortu dot.

**Hori handiena bada be, beste lorpen handiak izan dozuz, Espainiako Txapelketan hirugarren, esate baterako.**

Bai. Espainiako Txapelketa baino arinago joan nintzan Belgikara, Munduko Kopako lasterketara. Aurten Munduko Kopako hiru proba dagoz eta bitan hartuko dot parte. Bigarrena da orain garagarrilean egingo dana Euskadin.

Lehenengoa Belgikan izan zan, maiatzaren 22an. Han nahiko postua egin neban bidekoan, 14.a, baina ez nintzan oso pozik etorri apur bat aurrerago geratu gura nebalako. Hurrengo astegoienean Esteponara joan nintzan Euskadiko Selekzioagaz Espainiako Txapelketara eta han, erlojupekoan laugarren postua egin neban, hirugarrenetik hiru segundutara. Hurrengo egunean, bideko karreran hirugarren egin neban. Postu hobeaz lortzeako asmoagaz

joan nintzan baina ezin izan neban. Hirugarren postuagaz be pozik.

**Zein taldetan zagoz? Zein da zure ekipoa?**

Bilboko ekipo batez nago, Saiatu Fundazioa. Taldean *handbiken* ibiltzen dana, trizikloan eta bizikletan be ibiltzen garanak gagoz. Pozik nago taldean. Orain gainera, Euskal Herrian egingo dan Munduko Kopa Saiatu Fundazioak antolatuko dau.

**Taldean badago liderrik ala zelan funtzionetan dozu?**

Ez. Ziklismo egokitian kategoria batzuk dagoz. Bost kategoria dira diskapazitatearen arabera. Txartoen dagozanak dira MC1en dagozanak, ni MC2n nago, MC3, MC4 eta MC5. Zenbat eta zenbaki altuagoa, lesino txikiagoa gorputzean.

Saiatu Fundazioa taldean, ziklismoan MC2ko bi gagoz, Alfredo Irusta eta ni. Alfredo profesionala izan da, hanka bat falta jako. Gero beste bi dagoz MC5 kategorian eta beste bat be badago baina aspaldi honetan ez da etorri. Neskarik ez dago.

**Nor da zure entrenatzailea? Zelan entrenetan dozu?**

Aurten, pistako entrenadoreak bidean be entrenetan nau, Raul Mena da. Ekipoagaz be entrenetan dot batzuetan, baina oso gitxi gara. Normalean Dimako Tiritu Master taldeagaz entrenetan dot. Eta bakarrik be bai.

**Selekzioan zenbat zagoze?**

Aurten Espainiako Txapelketara 8 edo 9 lagun joan gara, eta gero teknikoak, masajistak eta abar. Guztira 14 lagun.

**Zein egoeratan dago ziklismo egokitia Euskal Herrian?**

Ez dago oso babestuta, ez da ezetutzen. Nire kasuan bai, Igorreko Udalak lagunduten deustalako. Lehengo urtean eta orain dala urte bi be bai, Munduko Kopako karreretara joan nintzan euren laguntzeari esker, eta nahiko ondo. Baina orokorrean, pilo bat karrera dagoz eta ez dago babesik. Ni enpresa babesle bila ibili naz baina ez dagoz.

**Garagarriko Munduko Kopeagaz amaituko da denporaldia?**

Niretzat bai. Lasterketa asko dagoz baina ezin naz danetara joan. Normalean Munduko Kopako lasterketan zentretan naz, horreek diralako kategoria gehien daukienak.

Garagarriaren 15etik 17ra izango da Munduko Kopa, niretzat denporaldi honetako azkenengo lasterketak. Erlojupekoa Gasteizen izango da eta gero hurrengo goizean Mungian bidekoa. Elorrion *handbike* egongo da. Beste ibilbide bat izango dabe.

Euskal Herrian lehenengo aldiz egingo da eta ikusgarria izango da.

**Txapela Arratiara ekarriko dozu?**

Gatxa izango da baina saiatuko naz. Ezetuten dot ibilbidea eta horrek asko lagunduten dau entrenametuak egiteko orduan. Baina aurten Joko Olinpikoak dagoz eta jentea oso fuerte dator, oso ondo preparama. Beti izaten da gogorra eta ondino gogorrago izango da aurten. Baina ikusiko dogu!

**MENDIA****Gorbeia Suzien Ternua 2016ko Lasterketa Nagusiko 500 dorsalak apenas ordu bitan agortu ziran****Erredakzioa**

Ordu bi eskas behar izan ziran Gorbeia Suzien Ternua 2016ko proba nagusiko 500 dorsalak saltzeako. Denpora gitxian agortuko ziralako espero eben Suzien Mendi Klube-koak baina hain denpora gitxian danak amaitzeak harritu egin ditu.

"Argi dago mendiko lasterketen artean, proba hau oso erakargarria dala eta bere eragina, egiten dan eremutik harago doala eta gero eta urrinagoko korrikalariak erakusten dabela proba honerik buruzko interesa. Aurreko urteetan ereindako uzta jasotzen gabiz" dinoe.

**Itxaron zerrendea**

Proba nagusiko 500 dorsalak amaituta, itxaron zerrenda bat zabaldu da eta bertan izena emotea gomendatzen jakie dorsalik lortu ez daben korrikalariak. Izan be, proba egunera arte hainbat baja egoten dira eta dorsala libre itxiatokan, itxaron zerrendan dagoan

beste korrikalari bateri emoten jako, izen-emote ordena errespetatuz. Halanda be antolakuntzak, arratiarren konpromisoa erakutsi gura izan dau eta itxaron zerrendan egon diran korrikalari arratiarri dorsala emon deuse, BEGURI Gorbeia Suzien Ternua Lasterketako antolakuntzak adierazo deusaren arabera.

**Lasterketa Herrikoa**

Gorbeia Suzien Ternua 2016an parte hartzeko beste aukera bat, 22 km. eta 1.430 m.ko desnibel positibodun Lasterketa Herrikoa da. Ibilbide nagusiko paraje guztietatik ez da pasetan, baina, "duda barik, ibilbide zoragarria dauka Gorbeiko Parke Naturalaz disfrutatuko" dinoe.

**Boluntarioak**

Antolakuntzakoak, boluntarioak merezi daben tratua emon guran, Ternuak eurentzat modu berezian diseinutako kirolerako erroa bat emongo deuse.



Manuel Merillas, igazko irabazlea.

**MENDIA****Arteako auzuneak ezetuteko mendi martxea garagarrilean****Erredakzioa**

Arte Auzorik Auzo, Arteako auzuneetatik pasetan dan mendi martxeak hogeitau urte beteko ditu aurten. Garagarriaren 3an izango da, Arteako Kirol Kultur eta Euskera Taldeak (AKKT) antolatuta. Martxa honen helburua Arteako auzuneak eta bide zaharrak ezetuten emotea da.

Urtekera goizeko 08:30ean izango da eta ibilbide bi egongo dira aukeran. Luzeak 32 km.

izango ditu eta laburrak 18 km. Partaideak indar barik geratu ez daitezkan, jatekoa egongo da Lau-reta auzoan eta helmugan.





## KIROLAK

# Generoak eta adinak eragiten dabe kultur eta kirol zerbitzuen erabilerean

### Erredakzioa

Igorren eskeintzen diran kultura ikastaroetan parte hartzean daben ia danak andrazkoak dira; kirol zerbitzuetako erabilerean barriz, genero aldetik orekatuagoa dala ikusi dabe Matxalen Legarreta, Pili Alvarez eta Idoia Legarretak bagilaren 6an aurkeztutako *Igorreko aisialdi eta kirol zerbitzuen azterketa genero ikuspegitik* ikerketan. Azterketearen helburua, egiten dan aisialdi eta kirol zerbitzuen erabilerean ezetutea da, genero bardintasuna bermatuteko.

Igorreko kultura ikastaroetan parte hartzean dabenen gehien-go absolutua andrazkoak dira, gehienak helduak, eta edadearen arabera segregazioa dago. Holan, gazteak Akrobazia eta Eskalada moduko ikastaroetan hartzean dabe parte eta helduak Nagusientzako Gimnasia, Aerobic eta Tai Chin.

Zerbitzuetako erabiltzaileen profila, barriz, gizon zein andra heldua da. Kiroldengan gehien erabiltzen dan zerbitzua gimnasia da; Kultur Etxean, batzar gelak. Gizonak kirol zerbitzuak erabiltzen dabez gehiago eta andrak kultur zerbitzuak.

### Metodologia

Aztertzaileak erabiltzaileak zein ez erabiltzaileak definitu eta genero bardintasuna bermatzeko zer egin daiteken aztertea euki dabe helburu. Erabiltzaileak definituteko inkestak pasau ebezan, ikastaroetan eta zerbitzuen erabiltzaileen artean. Behin ikusita zeintzu ziran erabiltzaileak, ez erabiltzaileak hiru talde egin eta talde dinamikak egin ebezan oztupoak identifiketako. Aisialdi eta kirol zerbitzuak ez dabena erabiltzen gehiago izan arren eta profil desbardinatetakoak, azterketearen mugak dirala eta, hiru talde egin zituen: aniztasun funtzionala daukien andrak, andra etorkinak eta bertoko gizonak. Zerbitzuak erabiltzeko oztupoen artean,


askok eskeintza eta diru laguntzak ez dabezala ezetuten dago.

Talde dinamikak egiteko talde bakoitzean hiruzpalau lagun batu ziran.

### Ondorioak

Genero aldagaiak eragin handia daukala ondorioztatu dabe aztertzaileak. Kultura esparrua feminizata dago eta kirolean be eragin handia dauka generoak. Gizonak futbolearen egiten dabela eta beste kirolak batez be neska gazteak egiten dituela aitatu zan aurkezpen osteko debatean.

Genero arabera sozializazio desbardinatua eragin behar dala uste dabe aztertzaileak eta horretarako, andren jabeakuntza prozesuak eta egutegi eta ordutegi malgutasuna bultzatu behar dirala, beste gauza batzuen artean. Horregaitik, kirola praktiketako aire libre zein aterpeko espazio gehiago eta ikastaroak txandakako lana egiten dabena aukera emoteko moduan antolatutea izan zan emondako jarraibideetako bat.



Matxalen Legarreta, Pili Alvarez eta Idoia Legarreta.

## MENDI BIZIKLETEA

# Alfonso Lopezek irabazi eban ZeberioXTrem lasterketa luzea eta Alvaro Gutierrezek laburra

### Erredakzioa

Bagilaren 5ean, 291 gizonetako eta 5 andra batu ziran ZeberioXTrem ermitabarri auzunean, ZeberioXTrem BTT Lehiaketan parte hartzeako. Azkarrenak, Alfonso

Lopez eta Josu Isasi izan ziran 43 kilometroko ibilbide luzean eta Alvaro Gutierrez eta Iker Lekue laburrean (32 km.). Andren artean, Arantza Artetxe izan zan azkarrena.

Zirkuitu gogorra da, baina bez-

peran egindako euriak lupetzaz bete eta oraindino gogorrago egin eban ibilbidea. Dana dala, partaideak pozik agertu ziran egon zan "giro eta antolakuntza onagaitik" eta "parajeen edertasunagaitik".

## MARATOI TXIKIA

# Onditz Iturbe igorreztarrek eta Ekaitz Kortazarrek irabazi eban Maratoi Txikia

### Erredakzioa

Arratiako Maratoi Txikiaren XXXVII. edizinoan, Onditz Iturbe igorreztarrek eta Ekaitz Kortazarrek jantzi eban txapela. Carmen Gartzia eta Mitxel Gonzalezek irabazi eban beteranoetan. Beste kategorietan ez zan sailkapenik egin eta parte hartu eban ume guztiak domina bana jaso eban.

Aurten, Arratiako eskoletako guraso alkarteak hartu dabe Arratiako Maratoi Txikia antolatuteko erreleboa. Umeen artean kirola sustatu, baina planteamentua lehiakorra ez izatea gura dabe. Horregaitik ez da sailkapenik egin umeen kategorietan, eta parte hartu dabena guztiak, zerbaist jateko, kamiseteta eta domina emon eutseen.

Ikutu solidarioa be izan eban kirol ospakizunak. Izan be, Batera ibiliz alkarteak, Igorreko eskolako patioan bere lana ezetuten emoteko aukera izan eban. Alkarte hau Malin osasun zentro bat zabalduko dirua batzean dabil.

### Sariak

Nagusi eta beteranoak, andrazko eta gizonen kategorietako lehenengo hirurak jaso eban garaikorra. Honeexek izan ziran podiumera igo ziran lasterkariak.

### Nagusiak

#### Andrak

1. Onditz Iturbe.
2. Mari Carmen Gartzia.
3. Jessica Uriel.

### Gizonak

1. Ekaitz Kortazar.
2. Unai Saenz de la Fuente.
3. Iñaki Pujana.

### Beteranoak

#### Andrak

1. Elixabete Gonzalez.
2. Onintze Petralanda.
3. Maribel Piris.

### Gizonak

1. Mitxel Gonzalez.
2. Jose Manuel Perez.
3. Jabier Irazabal.



Umeak helmugara heltzean.

Udarako BEGITUREN kamiseta barriak salgai

10 eurotan, Begitu-lagunak 8 euro

Bialdu mezua [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
helbidera neurria adierazoz

**begitu**  
errotia ez dabil ez dabil

## MUSIKEA

Andrazkoen abots konboa  
eta *Bi poliedro* diskoaren  
aurkezpena Areatzan

Bilbaomusikako abots konboa.

## Erredakzioa

Erdi eta Musikatu izenpean, Areatzako Kirol Kultur Batzordeak (AKKB) kontzertu bi antolatu ditu bagilaren 21 eta 22rako. Kontzertuok Udal Areatzan izango dira arrastiko 19:30ean.

Astelehenean, hilak 21, Bilbaomusikako abots konboa entzuteko aukerea egongo da. Zortzi

andra gaztek eta pianistek osotuten dabe konboa. Gaur eguneko eta soul estiloko kantuek kantetan dabez.

Hurrengo egunean, Garikoitz Mendizabal eta Aitor Furundarenak *Bi poliedro* euren azken diskoa aurkeztuko dabe. Musikari bi honeek txistua eta soinua bateratzen dabez musika klasikoa, tradizionala, zeltiarra edo antxinakoa egiteko.

## LEHIAKETEAK

Patikak irabazi dau Zu  
bai Zu Lehiaketea

## Erredakzioa

Patikak, Jorge eta Deieneren jantza eskolako ikasleak irabazi dabe Zu bai Zu Talentu Lehiaketea nagusien kategorian. Gazteetan, Jone Muñecas eta June Iruarizagak eroan eben saria telakaz egindako akrobaziakaitik eta umeen kategorian irabazlea, Magali izan zan.

Finalean, Jorge eta Deiene, Nahia eta bere taldea, Vinagre de Moderna eta Patikak lehiatu ziran nagusietan; Jone Intxausti (Klown), Leire Trueba (jantzan) eta Jone Muñecas eta June Iruarizaga gazteetan, eta Aimar Bereziartua (tronpea), Izaro, Paule eta Nikole (jantza akrobatikoa), eta Magali

(tela akrobaziak) umeetan.

Sariai jagokienean, nagusien kategoriako irabazleak 750 euro eskudirutan eta 250 euro Arratiako Merkatarien Elkarteko (AME) bonoetan eroan ebazan; gazte kategoriakoak 150 eskudirutan eta 150 bonoetan, eta umeen kategoriakoak 100 euro eta 100 euro hurrengoak hurrengo.

## Giroa barruan eta kanpoan

Finalerako sarrera guztiak saldu ziran eta interesa eukan inor ez geratzeko ikusi barik pantaila handi bat ipini eben kanpoan. "Ambiente ederra egon zan barruan eta kanpoan, nahiz eta euria egin, jentek hor segiduten eban. Eta finalean... gala konpletua izan zan, barre,

negar, sorpresak, harritu be egin ginan... oso oso pozik gagoz" dino Ismael Pereira aurkezleak.

Antolatzaileak be igo ziran eszenalekura, eurak be talentua daukie-la erakusten. Holan, barbarako, antolakuntzakoak Mojinos Escocios taldearen imitazioa egin eben eta Olaia Larruzea epaimahaikoak eta Ismael Pereirak, *Dirty dancing*.

www.begitu.org webgunean egun horretako argazkiak dagoz.



## AKKT

## Babajana AKKT Egunean

## Erredakzioa

Artea Kirol Kultur eta Euskara Taldeak (AKKT) alkartearen eguna ospatuko dau bagilaren 18an. Horretarako umeentzako jolasak eta babajana egingo dabe. Umeentzako puzgarriak, Baba Gorri Lehiaketeak, bazkari herrikoiak eta ume zein nagusientzako joko kooperatiboak osotuten dabe egitaraua.

Lehiaketan parte hartzeako ez dago izena emon beharrik eta talde bakotxa gura dauan orduan hasiko da babak prestatzen, eguraldi ona bada plazan eta txarra bada frontoian. Dana dala, babak 14:00etan aurkeztu behar dira. Lehiaketea ez da profesionalentzat izango eta danon aurrean prestatu behar dira baba gorriak: exetik zeozer prestatuta ekarri ezker, lehiaketatik kanpo gera-



tuko da lapikoa.

Babak egosteko, gasa, ikatza edo egurrezko sua erabili daiteke, baina Euskal Herriko baba gorria derrigor erabili behar da. Patatak, barazkiak, txorizoa, urdaia eta odolostea erabili daitezke, baina ez dira derrigorrezkoak. Aurkezteko momentuan, alde batetik baba gorri hutsen lapikoa aurkeztuko da, eta bestetik, "sakramentuak" bandeja baten.

Gozoenak aukeratu ostean, herri bazkaria hasiko da. AKKTk mahaiak, mantelak eta edaria ipiniko ditu.

## AUSTARRI EGUNA

Austarriren  
Eguna 24an

## Erredakzioa

Bagilaren 24an, Zeberioako Austarri Kultur Elkartek bere eguna ospatuko dau. Egund horretan, bazkideak batzarra egingo dabe. Batzarrerako lehenengo deialdia 19:30ean da eta bigarrena 20:00etan. Batzarraren ostean, 20:30ean, txistorra jana egingo dabe eta 21:30ean, Erdizka Lauetan taldearen eskutik, plazan jantzan egiteko aukerea izango dabe hurreratzetan diran guztiak.



## LEHIAKETEAK

Zeberioko  
jaietarako  
Kartel  
Lehiaketea

## Erredakzioa

Zeberioko Jai Batzordeak eta Udalak jaietako kartela aukeratzeko, Kartel Lehiaketea ipini dabe martxan. Lanak bagilaren 24ra arte aurkeztu daitezke udaletxean.

Egile bakotzak lan bi aurkeztu daike gehienez. Kartelaren tamaina 70cm x 50cm izango da eta espazio bat gorde beharko da jaietako egitarauaren edukiarentzat. Karte-

lak testu hau izango dau:

ZEBERIOKO SANDONIAK 2016  
Irailaren 1etik irailaren 5era  
Irabazleak Zeberioko produk-  
tuen otzara bat izango dau sarizat.



Bizkaifisios SLk  
bi zentro ditu  
Fisioterapia  
Zentroa  
Igorre  
Elexalde 4  
Telefonoa 94 631 55 08  
Andra Mari  
Klinika  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1. Caldakao  
Tel/Faxa 94 457 23 64  
www.bizkaifisios.com

begitu  
arabiarra eta euzkoia

ARA OTZ  
Lanegunak 0. Jantzerak 1.  
Ponentea: Igorre 2.01. 40141 Ponente: Ponentea

Beer & Edariak s.l.  
HEINEKEN SOLARES  
Puzgarriak, 2 48500 LEIZOA, Bizkaia  
Tel: 945 489 170 Fax: 945 489 177

FISIK  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENAKARI AGRIE, 17 - IGORRE

RUGBY  
TABERNA  
Egin zaitez bazkide!  
09:30etik zabalik  
Asteburretan pintxo  
bereziak  
arratiako.zekozak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

arratiako  
instalazioak s.l.  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Aireztatze sistemak  
Aire zurgatze zentralizatuak  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak  
Igorreko Industrialdea  
Pab. 07  
Tel. Fax: 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia



## UEU

### UEUko udako ikastaroak hasi dira

#### Erredakzinoa

Bagilaren 10ean Donostian hasi eta garagarriaren 24ra bitartean, Iruñea, Eibar, Baiona, Bidarte, Bilbo eta Zumaian UEUk (Udako Euskal Unibertsitatea) udako ikastaroak emongo ditu. Aurtengo

ekitaldiaren leloa "Anitza" da, gai, formatu eta lekuen ugaritasuna adierazoteko. Izan be, zazpi jardunaldi eta 23 ikastaro eskeintzen ditu aurten UEUk.

BFAK, Bizkaiko unibersidade ikasle eta unibersidade ikasle ohi langabetuak diru-laguntzak emoten deutsez,

matrikulea, egoitza eta joan-etorria pagetako. Eta UEU kideak be % 25eko deskontua daukie.

Informazio gehiagorako ueu.eus webgunera jo daiteke.



## EUSKERA

### Hitzarmena sinatu dabe Lemoan enpresa eta komertzioetan euskerearen erabilera sustatzeko



Lemoako udaletxea.

#### Erredakzinoa

Lemoako Udalak eta Bai Euskarari Ziuertagiriaren Elkarrekin hitzarmena sinatu dabe herriko merkataritza eta ostalaritzan euskera sustatzeko. Bai Euskarari Ziuertagiria eskuratzen daben Lemoako eragileak diru-laguntzea jasoko dabe udaletik. Diru-laguntzea jasoteko baldintza izango da udalagaz euskerearen erabilera areagotzeko konpromisoa hartzea.

Lemoako Udalak berak be, Bai Euskarari Ziuertagiria barritzatu dau. Bidean maila dauka gaur egun, baina euskerearen presentzia areagotzeko konpromisoak hartu ditu.

Ziuertagiria Euskal Herriko alor

sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiteko tresna baliagarria da; bezeroai begira, zerbitzuak eta produktuak euskeraz eskeintzea erakargarriagoa da; merkadu kuota irabazten lagunduten dau; euskereagazko konpromisoa adierazoten dau taldearen kohesioan eta motibazioan eraginez, eta pausuk emoten dabizen Euskal Herri osoko entitateak identifikatu eta sarituten dauz.

#### Ziuertagiridunak

Lemoako lau eragilek eskuratzen dabe Bai Euskarari Ziuertagiria: Ganzabal Mendi Taldeak, Kirlan Kiroi Lanak, Lemoako Udalak eta Opel Ibaiganeak.

## ANTZERKIA

### Arratiako Kaleko Arteen I. Erakustaldia antolatu dabe Arantzazu eta Areatzan

#### Erredakzinoa

Arantzazu eta Areatzako Udalak Arratiako I. Kaleko Arteen Erakustaldia antolatu dabe, bagilaren 23, 24 eta garagarriaren 1 eta 3rako. Kaleko antzerkia Ganso & Cia konpainiak *Walkman* ikuskizuna ekarriko dau, Cia Barre taldeak *Eskobien atzetik* eta Ortz *Ilusioa*.

Ganso & Cia, Gorka Gansoren konpainia da. Honek, konpainia eta Renato pertsonajea sortu eban 2008an, klown munduaren bere ikuspegi berezia emoteko asmoz. Gansok lotura bako egoera dibertigarriak erakusten

ditu arrakasta handiko *Walkman* ikuskizunean. Ikuskizun hau ikusteko aukerea dago bagilaren 23an 20:00etan Areatzako plazan, eta garagarriaren 3an 18:00etan, Arantzazukoan.

Cia Barre taldeak be *Eskobien atzetik* kale antzerkiaren emondia bi egingo ditu; bata Arantzazun eta bestea Areatzan. Ikuskizuna 1960ko hamarkadako kale garbitzaile batean oinarritzen da. Pertsonajeak kaleak garbitzen topauko dituan egoerai egingo deutse aurre, sinpatiaz eta abilezia handiz. Arantzazuko plazan bagilaren 24an 19:00etan izango da eta Areatzako plazan garagarri-



Walkman ikuskizuna.

laren 1ean 20:00etan.

Ortz *Ilusioa*, barriz, Areatzan baino ezin izango da ikusi. Gorputz adierazpen, akrobazia, komedia, drama eta zuzeneko musikaz kontakizun bat josten dau Ortz *Ilusioa* ikuskizunean. Ikusteko aukerea garagarriaren 1ean, 22:00etan, egongo da Areatzako plazan.

## DUNBA

### Areatza eta Zeberioko ikasleak San Justoko karobian

Han kareharriaren erabilereari buruzko informazioa jaso dabe.

#### Areatzako eskolako 3. eta 4. mailako ikasleak

Areatzako eta Zeberioko LH2-ko ikasleak San Justoko karobia bisita egin eben maiatzaren 27an. Bisitaldiaren helburua kareharriaren erabilereari buruzko informazioa jasotea zan. Izan be, momentu

honetan mineralena da landuten dabizen proiektua.

Guztira 41 ikasle eta 4 irakasle parte hartu eben bisitaldian. Bertan Jon Urutxurtuk, Ipizki taldeko kideak, azalpenak emon eutsen. Talde hau arduratzen da karobia jagoteaz, eta funtzionamentuaz eta erabilereaz informatan.

Urutxurtuk azaldu eban 1950. urtera arte karobia martxan egon zan. Karobia, 1996an Ipizki Taldeak berreskuratu eban, eta ordutik abuztuko lehenengo astegienera karobia lanean ipinten da. Karobi honetan ekoiztutako kareak inguruan hainbat erabilpen izan eban: etxe eta baserriak eregiteko, kareharria

lurra eta uragaz nahasten zan, morteroa lortzeko; abelzaintzan be erabilten zan, abereen zauriak osatuteko, baita osasungintzan be, gaixotasun eta izurriteak ekiditeko.

Euskal Herrian, karobiak XVII. mendetik aurrera hasi ziran eregiten. Lau metroko alturako labeak ziran eta leku aldapatsuetan eregiten ziran, goiko eta beheko ahoetako sarrerak eskura eukiteko eta hobeto lan egin ahal izateko.

San Justoko karobia frantsesa deritxan motatakoa da. Bere funtzionamentua honakoa zan: erregai funtzioa egiten dauan egurraz beteten da, eta sua emon eta gero, gainean karehari geruzak

ipinten joaten da. Holan, harria erretzen da eta karea behean geratzen da. Karea egin ahala, egur eta karehari gehiagoz beteten da.

Lan hau guztia egiteko, hainbat lagun ziran beharrezkoak, eta horregaitik karobiaren inguruko hiruzpalau etxetako pertsonak lan egiten eben, auzolanean.

Karobien erabilera XX. mendean zehar desagertzen joan zan, abonua kimikoa eta porlanaren produktzio industrialagaz lehiatu

ezin ebalako.

Ikasleak apunteak hartzeaz gainera hainbat itaun egin eban.








## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA


1.- Hizkuntza semitikoetan, Jainkoa. Ler.  
2.- Greziako uhartea. Musika mota.  
3.- Joan dan urtean. Helioa.  
4.- Nitrogenoa. Zokor. 5.- Balioko, gai. 6.- Ibar. Sufrea. 7.- Erbioa. Sagu harrapari. 8.- Materiaren oinarritzko hiru egoeratako bat. Bibliako pertsonajea, Abrahamen iloba. 9.- Enbudo. Suagaz batera.

### GOITIK BEHERA

1.- Eragon. Hegal. 2.- Matematikan, logaritmoaren laburdurea. Galant.  
3.- Nahiko. Musika nota.  
4.- Konsonantea. Plurala, esneagaz jaten dira. Berrogeta hamar erromatar. 5.- Iridioa. Ubide.  
6.- Arren. Errepetiduta, oinetako-hotsen onomatopeia. 7.- Upa. Erreketa.



Topau zazpi animalia mitologikoren izenak.



# AKI MI KO

Iman Olatu



umoz moda  
**SEM**  
0-10  
Agirre Lehendakaria, 21 • 48140 IGORRE  
Telefonoa: 94 631 92 99 • e-mail: sem@telefonos.com

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAZIAK, HONKATZAK ETA TERBITZAK  
Calle 21 Telefonoa: 94 629 62 14 60892-62968

**ARKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
**IGORRE**

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Telefonoa 649 86 95 36

**NAIARA** Hertz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
04 631 52 26

**Orde**  
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA  
L. Agirre, 1.  
48140 Agirre (Igorre) Telefonoa: 94 629 62 14

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...  
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.  
ANOLKULARITZA, LAN ZUZENBIDEA, ZERGA, KONTABILITATEA.  
Tel. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bakalea)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3, 3a • 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

**KIRRU ILEAPANDEGIA SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 18 bago - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
• 94 631 92 00

**Pinturas Aratia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**KRRATIA AUTOESKOLA**  
Karratu eskola eta enbata  
Calle 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonoa: 94 629 36 31 Faxa: 94 629 70 82  
e-posta: urko@urkoeskola.net

## HARRITI GIZA PROBA TALDEA

## Harriti, Arratiako neska osotutako giza proba taldea

Harriti taldea ondoko kirolariak osotuten dabe: Esti Olibares Azurmendik, Janire Campo Aranburuk, Ariane Landa Manzarragak, Nagore Dominguez Martinez de Mendibilek, Laura del Olmo Urkiagak, Laura Ortizek, Emma Aguilar Jauregik, Ane Itxaso Elexpuru Uriartek, Beatriz Manchado Tamayok, Eider Gorostiaga Ajuriagoikoak eta Arantza Aldekoa Zelaia. Honek giza probak egiten ditue, 500 kiloko harriak eroan behar ditue 15-20 minutuko denpora tartean. Ahalik eta untze gehien egitea da helburua. Hau da, lehenengo marra eta azkena markatuta dagoz eta azkenengo marraraino heldu behar dira ahalik eta gehienetan.

Arkaitz Arana zeanuriztarra da euren entrenatzailea.



**Rakel Aldekoa Diez**

### Noz sortu zan Harriti eta zergaitik?

**Arkaitz Arana:** Orain dala urte bi sortu zan, martiaren inguruan. Gure Esku Dagoko ekimenaren barruan egon zan eta bertan, gogoa euki genduan Zeanuri eta Gipuzkoako beste herri baten andra proben norgehiagokea egiteko, beraz, Irati Astondoa eta biok alkartu ginan eta talde bi sortu ziran bat hemen eta bestea han. Holan hasi zan dana. Gero, sanisidroak etorri ziran eta hemengo taldeak aurrera jarrai-

tzea pentsau eban, eta gaur arte holan gabilz.

### Zelan entrenetan dozue eta non?

**Esti Olibares:** Zeanurin entrenetan dogu astean baten edo birritan.

### Orain arte egindako erakustaldi eta norgehiagoketan, zeintzuk gogoratzen dozuez modu berezian?

**Ariane Landa:** Euki genduan lehenengo txapelketea Villabonan izan zan. Pentsau genduan azkenak geratuko ginala baina azkenean, lau taldetatik hirugarren egin genduan eta pozik

*Udagoiengan, ate irekien egun bat egiteko asmoa daukagu, gura daben Arratiako neska guztiak probau daien kirol hau*

amaitu genduan eta horrek motibau egin ginduzan. Beste behin ostera, sano txapelketa formala geunkan eta pentsau genduan bazkaldu barik joatea, pisu gitxiago emoteko... Hara heldutakoan beste ekipokoak kaltzetinak kentzean, kamisetea kentzean eta abar hasi ziran. Orduan geuk be kendu genduzan erropak, baina hata guzti be, pisutik pasau ginan, jan barik egon arren.

### Zer espero dozue kirol honetatik? Hau da, hamar urte barru, esaterako.

**Arkaitz Arana:** Ona izango litzateke neska talde gehiago egotea eta ofizialtasuna izatea txapelketa moduan Euskadi mailan. Eta ondo egongo litzateke, hamar urte baino arinago, txapela Arratiara ekarte.

### Kirolak berak badauka etorkizunik? Zergaitik?

**Laura del Olmo:** Kirol hau lehenagotik dator eta ikusteko polita da. Gainera, oso ondo pasetan dogu. Momentuz, Euskal Herriak hasiko gara jirea egiten, txapela irabaziko dogu eta gero Europatik mobiduten hasiko gara.

**Zenbat talde dagoz Euskal**

### Herrian? Federauta zagoze?

**Janire Campo:** Orainxe bertan hiru talde dagoz: Emarri, Mendaro eta Harriti. Federazioan ez dago ekiporik federatuta. Gerora begira, federauko bagina, txapelketea egin ahaliko geunke.

Ez dago maila desbardinik. Ekipoko jentearen artean berba egiten dogu eta akordio batera heltzean gara: ez-dakit-ze-egunetan lehiaketea egingo dogu edo erakustaldia egingo dogu ez-dakit-zein-ekipok. Holan antolatuten gara.

### Zeintzuk dira zuen hurrengo zitak?

**Ane Itxaso Elexpuru:** Momentuz zita bi daukagu: bata, bagilaren 25ean, Lukianon. Gaubeko erakustaldi bat izango da, eta xelebrea izango dala iruditzen jata. Bestea, garagarilaren 23an, Astigarragan, Andra proben Topagunean. Baina badaukaguz pendiente beste zita batzuk, ondino seguruak ez diran arren.

Udagoiengan, ate irekien egun bat egiteko asmoa daukagu, gura daben Arratiako neska guztiak probau dagien kirol hau. Ea ekipoa handituten dogun!

**begitu**  
arratia ubide zeberio

**www.begitu.org**

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gure ikastetxeak  
Euskalduna kalidadezkoa  
herrikoa

**JB Eguzkiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

**Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Dima

**Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

**Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

**Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 65 Artea

**Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

**Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

**I. Zubizarreta HLHI**  
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

